

Hasperena: jatorriak, irregularitateak eta horien azalpena

Historia, jatorria.

Lekukotasunen arabera, noizbait orokorra izan da euskaren eremu guztietan. Akitaniako zein Erdi Aroko datuek hori erakusten dute. Adibidez, Nafarroa ekialdean (Lerga), I. mendean: “ummesahar”, “abisunhari”. Araban ere, “helatse”.

Egun, Iparraldean mantentzen den ezaugarria Nafarroan X. menderako galdu zen. Hegoaldean gutxi gora behera XIII-XIV. mendeetan galdu zen.

XVI. mendeko hegoaldeko lekukotasunetan ez zegoen “h” fonologikorik; “h”, hurrengo hotsa bokala zela adierazteko erabiltzen zen. “Refranes y Sentencias”-en, adibidez, hasperena agertzen da baina grafia hutsa da: “uevo” = “vevo” vs “huevo”. Bi formak bereizteko grafia da “h”.

Mitxelenak aitzin euskararen fonema inbentarioan sartu zuen (Gavel-en aurka; 1920an zioen AE-n ez zegoela “h”-rik), pentsatzen baitzuen beharrezkoa zela euskal lexikoa eta morfologia azaltzeko.

Luchaire-ren arabera (1875), “h”-a AE-n bazegoen, Akitaniako zein Erdi Aroko datuek frogatzen duten bezala.

Mitxelenaren arabera, hasperena ondoko bost ingurune hauetan ager zitekeen:

- 1) Hitz hasieran (#__), bokal edo diptongo aurretik: “harri”, “hezur”, “haur”...
- 2) Hitz barruan, bokal artean (V__V): “ahate”, “ohe”, “ahalke”...
- 3) Diptongo eta bokal artean (dipt__V): “oihan”, “leiho”... [berria diptongoa da, ez “h”].
- 4) Kontsonante ozen ondotik eta bokal aurretik (n, l, r__V): “elhe”, “senhar”, “urrhe”...
- 5) Herskari ahoskabe hasperendunak; ez dira etimologikoak, ez baitute sistema fonologikoaren berreraiketan unitaterik eskatzen: “kheñu”, “ankher”...

Jatorriari begira, Mitxelenak balio etimologikodun hasperenak sailkatzeko lau sail proposatu zituen:

- 1) AE-ko “h” zahar batetik letorkeena.
- 2) Latinezko “f” batetik letorkeena; “f-” > “h-”. Euskaraz “f” fonema inbentarioaren barruan ez zegoen kontsonantea izanik, zaila da jakiten aldaketa hori euskaren barruan gertatu den edo zuzenean gaskoieratik horrela etorri zen: “forma” > “horma”.
- 3) Bokalarteko “-n-” zahar batetik letorkeena. VnV > VhV. Bokal arteko “n” ahulak, maileguetan edota jatorrizko hitzekin bokalarteko posizioan “h” eman du: “ahate”.
- 4) Hitz hasierako herskari ahoskabe edo bortitz batetik letorkeena; “Halsko” / “Talsko”, “harri” / “*kar”; hasierako posizioan dagoen “h”-ak leherkari bortitza eman du.

Bokalarteko “-n-” batetik datozen hasperen batzuk, Lakarrak ez-etimologikotzat hartutako hasperen asko etimologikoak direla frogatu du berriki, hitzen forma kanonikoaren azterketan oinarrituta.

Euskara historikoan, latinetik hartutako maileguetan eta euskararen berezko hitzetan, bokal arteko “-n-”-aren galera ikus dezakegu: onorem > ohore, corona > koroa... VnV egiturako galera hori erregularra da. Hasperena mantentzen den euskalkietan “*-n-” hori zegokion lekuan hasperena erakusten dute beti, bigarren silaban badago.

Mitxelenaren arabera, “*-n-”-aren galera Akitaniako lekukotasunen ondorengoa da, bertan “sen” agertzen baita, gaurko “sehi” edo “segi”. Nolanahi ere, XI. menderako bilakaerak gertatuta behar zuen lekukotasuna baditugulako. Beraz, bilakaera IV-X. mendeetan gertatu zen.

Trask-ek bilakabidea goi Erdi Aroan gertatu zela dio, eta XI. menderako bukatu. Bertan, bilakabidea ez gertatzeko testuinguru bat jartzen du: “*-n-” > Ø / i__. Bokal honek “n” sabaikaritu egiten du: “pinum” > “piñu”.

Trask-ek proposatutako erregela hau da: 1. “*-n-” > “ñ” / i__. 2. “*-n-“ > Ø

Hori zuzena balitz, Mitxelenak “mihi” hitzarentzat berreraikitako “*bini” ez litzateke zuzena. Bestalde, ebidentzia guztiek garamate pentsatzera “mihi”-ko hasperena sudurkari batetik datorrela.

Grassmann-en legea: [h.....h > Ø.....h]

Gaurko euskalki hasperendunek ez dute onartzen hitz batean bi hasperen izatea. Berez, hitz elkarketan bi “h” elkartzen badira, sistematikoki lehena desagertu egiten da. Dena dela, Mitxelenak murriztapen hau garai zaharretan existitu ez izana posible dela esan zuen. Indargarri gisa, Donemiliagako hitz zerrenda: “Harhazua”, “Harahia”, “Hagurahin”... Toponimoek erakusten dute X-XI. mendean oraindik lege hori gauzatu gabe zegoela.

Lakarrak erakutsi du “*-n-” batetik datozen hasperen asko 3. silaban ere sortu direla: Mitxelenaren “h” etimologikoaren lehen sailkapenean ez da esaten aldaketa non agertu behar den. Alabaina, “arena” > “harea” aldaketak erabat betetzen du “ahare”-z emandako definizioa. Soilik aipatu ez zuen erregela bat erantsi behar zaio: *h3 > h1, 2. silabaren hasieran sortutakoa lehen silabara hedatzea. Adibidez: “*eliho” > “herio”, “*edoni” > “hodei”.

Lakarrak, *h2 > h1 bilakabidea ere proposatu du: “*enuskara” > “*ehuskara” > “heuskara”, “*enazur” > “*ehazur” > “hezur”.

Kronologia erlatibo bat ematen du: *h2 > h1 dirudi zaharrena, eta hau indargabetu ondoren, beste biak (*h3 > h1, eta h.....h > Ø.....h) gertatuko ziren. Adibidez: “*heu-hun” > “ehun”. Grassmann-en legea bai, baina *h2 > h1 ez. Kronologikoki Grassmann-en legea bigarren lekuan dago, lege hau emateko *h2 > h1 agertu behar duelako. Hirugarren lekuan *h3 > h1 bilakabidea dago: “*hilherri” > “ilherri”.

Bilakabide hau guztia IV. mendearen ondoren gertatu zen “n” > “h” gertatu eta gero. Mitxelena, geroztik, hasperena euskaraz azentuarekin loturik doala eta hasperena azentuaren ondoren ezi dela egon dio.

Azentua eta hasperenaren arteko lotura:

Trask: / h / nondik sortzen den azaltzeko azentuarekin lotutako erregelak ematen ditu: 1. Hasperenaren fonematasunaren aurka. 2. Salbuespen gutxi batzuekin, euskaraz / h /-ak ez dira etimologikoak.

Beraz, bi / h / mota bereizten ditu:

1. Hitzak bereizteko balio dutenak → Balio etimologikoa → “ari” / “hari” / “ahari”

2. Esanahia bereizteko balio ez dutenak → Balio etimologikorik ez → “behar”.

Martinet vs Mitxelena: Azentuari buruzko iritzi ezberdina. Martinetek euskal azentua 1. silaban dagoela dio, eta Mitxelenak 2. silaban dagoela.

Mitxelenak dio hasperenak azentuaren ezkerretara egon behar zuela ez erortzeko. Azentua ezkerretara joan den heinean, hasperenaren kokalekua mugatu da, eskuin muturrekoak galduz. Galeseran ere halako zerbait gertatzen da:

h_	h_	h_	h_
h_	h_	h_	*h_
h_	h_	*h_	
h_	*h_		

Baziren hasperenak 3. silaban ere, ez ordean 4. silaban: “herio” < “*e-ri-ho”, “jario” < “*e-da-li-no” (“n” > “h” ez zen gertatu, 4. silabatik datorrelako).

Kontsonante hasperendunek, berriak direnez, ez digute balio euskararen hasperena eta azentua azaltzeko: “phértute”, “phíke”...

Beraz, euskaraz azentua eta hasperena 1. eta 2. silabetan dira posible.

Irregularitateak:

1. “ibar” / “hibai”, “idor” / “hidoi” kasuak. Zergatik batzuk “h” eta besteek ez? “h”-a ez datorrelako “hur”-etik, 3. silabako “*-n-” > “h”-tik baizik. Adibidez:

“*hur-dor” > “idor” / “*hur-don-i” > “hidoi”

“*hur-bar” > “ibar” / “*hur-ban-i” > “hibai”.

2. Badaude zenbait kontraesan: a) Herri batetik bestera (“hibai” vs “ibai”). b) Familia etimologikoak. Dena den, kontraesan dialektalek ez dute “h”-aren izaera etimologikoa eta antzinasuna zalantzan jartzeko balio, baina familia etimologikoak bai. Azken hauek azentuarekin dute lotura. Adibidez, “abil” / “habil”, “hire” / “eure”...

“hire” = “hi + re”

“eure” = “hi + haur + re” → 1. “h” legez galdu (h.....h > Ø.....h). “*hihaure” > “*ihaure”. 2. Grassmann-en legea. Gramatikalizazioz paradigma osora hedatu da: “zeure”, “geure”...

3. Diptongo ondoko zenbait “h” azaltzeko, Mitxelenak lehen ez zegoen “h” bat gehitu dela esan zuen: “oihan”, “oihu”... Honen aurka, Lakarrak “h” ez, baizik eta “i” gehitu dela baieztatu ahal izan da.

- a. “Saihets”: “samur”, “sakon”, “sabai”... “sa-” aurrizkia da, ez “sai-”.
“saihets” : “sa (i) + hets”.
- b. “Eihar”: “*enar” > “*ehar” > “eihar”.
- d. “Eiho”: “*eno” > “*eho” > “eiho”.

4. Kasu batzuk azaltzeke daude (“harma”, “hautatu”, “hogen”...), nahiz eta ez diren ugari, “h” guztien % 2-a edo.